

Lan Hitz

Eguneroko lanean ere euskaraz

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Aurkibidea

Zer da LanHitz? 01

Euskara enpresan txertatzeko arrazoiak 02

Nola txertatu euskara enpresan 03

Neurrira egindako planak edo jarduerak 04

LanHitzek eskaintzen dituen laguntzak 05

Argibide gehiago 06





01 Zer da LanHitz?

Izenak dioen bezala, lana eta hitza uztartuz, lantokietan euskararen presentzia eta erabilera indartzeko eta bultzatzeko ekimena da, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatutakoa hain zuzen.

Azken urteotan hiritar eta herri agente gehienak ahalegin handia egiten ari dira euskal gizartea gero eta elebidunagoa izan dadin.

1990eko hamarkadan Eusko Jaurlaritzak abian jarri zuen lan munduan euskararen erabilera sustatzeko egitaraua; horretarako, euskarazko eskolak soilik antolatzeaz gain, prozesu planifikatuak ezarri ziren euskara osagai propio gisa enpresaren kulturean integratzeko.

Urte haietan baldintza oneko enpresa handietara zuzendutako egitarau pilotua zena, gaur gainontzeko enpresetara zabal daitekeen egitasmo finkoa da.

Badauzkagu egiten jakite bat, metatutako esperientzia, eta ohiko kudeaketa ereduaren arabera diseinaturiko bitarteko eta tresnak. Beraz, iritsi da egindako ahalegina kapitalizatzeko eta enpresa gehiagotara jokamolde ereduaren modurik eraginkorrenean zabaltzeko garaia.

Euskara gero eta egiazkoagoa egin dezakegu, politika eraginkorrak abian jarrita, eta enpresaburu, sindikatu nahiz langileen laguntza eta parte-hartzearekin. Euskarak gure enpresei balio erantsia emango dielako uste osoa daukagu.

Sinistuta gaude, halaber, gure elkartean oso errotuta dauden gure enpresek ekarpen handia egin dezaketela, lan munduan euskara gehiago erabiliz, euskal gizartea bertara eginagoa eta kohesionatuagoa izan dadin, baita hizkuntzari dagokionez ere.




02

Euskara enpresan txertatzeko arrazoiak







Globalizazio, merkatuen nazioartekotze, eleaniztasun eta berehalako onurak lortzeko politikak egiten diren garai hauetan, zergatik dago bere enpresaren osagitzat euskara ere hartzen duenik?

Euskara enpresan integratzeko ahaleginetan ari den enpresa asko, besteengandik bereizten dituen eredu propioaren bila dabilzan enpresa lehiatsu eta berritzaileak dira, beren baitako pertsonen nahiak ere aintzat hartzen dituztenak. Enpresa hauek ingurune hurbilenarekin bat datorren profila bereganatu nahi dute. Eta hurbilen duten ingurune horretan, gero eta handiagoa da elebidunen proportzioa, are handiagoa gazteen artean, horiek izanik, gainera, prestatuenak eta trebatuenak. Hortaz, etorkizuneko apustua da.

Euskaldunen bilakaera 1981-2001, adinaren arabera EAE



Laburbilduz, hauek dira lantokian euskara plana ezartzeko arrazoi nagusiak:

- Σ  Bere ingurunean sustraitutako enpresaren irudia islatzen du. Gero eta gizarte globalago honetan, lokalizazioa erakusten du.
- Σ  Proiektu berritzaileei ekiteko enpresa lehiatsuaren irudia islatzen du.
- Σ  Bere produktu edo zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituen enpresa kalitate handiagoa ari da eskaintzen, zerbitzu pertsonalizatuagoa, kultura hurbilpena eta prestakuntza handiagoa adierazten ari baita.
- Σ  Ezaugarri bereizlea da etengabeko hobekuntzaren kulturaren barruan. Ez da kasualitatea euskararen erabilera sustatzen ari diren enpresak etengabeko hobekuntza prozesuak abian izatea, eta hauetako askok lehen mailako aitortpena izatea.
- Σ  Euskal gizartea gero eta elebidunagoa da, eta oso aintzat hartzen ditu euskaraz eskainitako produktuak nahiz zerbitzuak.
-  Enpresako pertsonen nahiekin bat datorren neurrian, haiek asetzen laguntzen du.



03

Nola txertatu euskara enpresan

Enpresak berak badaki jakin zer eta nola lortu nahi duen. Eta lortutakoa eguneroko jardunean integratzeko zer egin behar duen ere bai. Horretan laguntzeko, eskura jartzen diogu enpresari metatutako esperientzia, tresnak eta bestelako baliabideak enpresa bakoitzak neurrira egindako plan edo jarduera propioak landu, kudeatu eta ebaluatu ditzan; beti ere, norberak zehaztu behar dituelarik bere helburuak, abiadura eta baliabideak.

Erakundeek errazago finkatu ahal izan ditzaten beren helburuak, Erreferentzia Marko Estandarra (EME) deritzan taxonomia edo laguntza-koadroa osatu dugu. Bertan daude jasota edozein erakundetan lan daitezkeen euskararen erabilera eta presentziazko helburuak, era sistematiko, argi eta errazean.

Laguntzarako tresna da, beraz. Erakunde edo enpresa estandar baten ohiko jardun-eremuak irudikatzen ditu, hizkuntza non eta zertan erabil daitezkeen erakutsiz. Horrela, euskara plana egin nahi duten erakundeek argi eta garbi ikus dezakete zein helburu eta eremu landu edo hobetu ditzaketen.

Hortaz, EME norbere beharretara egokitu ondoren, neurrira egindako ekintza plana lantzea da helburua, batik bat erabilerazko emaitzak lortzera bideratua.

EME hiru ardatzen arabera dago egituratua:


 Erakundearen irudia eta komunikazioa: errotulazioa, harrera, publizitatea...

Kanpo harremanak: ahozko edo idatzizko harremanak bezero eta hornitzaileekin, produktua edo zerbitzua...

Barne harremanak: langileen kudeaketa, laneko prestakuntza...

EMEk eskaintzen dituen horien artetik zure enpresarentzat egokienak aukeratzeko, diagnostiko-erreminta bat egin dugu, diagnostikoa ez-ezik hobetzeko hainbat bide ere erakutsiko dizkizuna. Diagnostiko horretatik abiatu, eta berariaz sortutako beste zenbait erreminta informatiko erabiliz, zure enpresako plana landu eta kudeatu ahal izango duzu.

Baita egindakoa neurtu eta ebaluatu ere. Bestalde, ohiko lan metodologiak jarraituz, PDCA zikloa proposatzen dizugu plana lantzeko:



Plan hauek enpresak berak diseinatu eta kudeatu ditzake. Hala ere, gaur egun badira alor honetan adituak diren enpresak, beren zerbitzua eskaintzen dutenak. Nolanahi ere den, asko dira egin daitezkeen ekintza zehatzak, plan egituratu bat egitera iritsi gabe.



04

Neurrira egindako planak edo jarduerak

Edozein enpresak izan dezake bere plana, edo planik ez bada, bai behintzat aldeko ekintza sorta bat. Hori horrela, EMEk eskaintzen dituenen artean, badira batzuk, salbuespenak salbuespen, lorgarriagoak direnak beste batzuk baino: euskararen presentzia -errotulazioa kasu-bermatzera zuzendutakoak, ez baitute hizkuntza menderatzea eskatzen oro har. Erabilera areagotzeko helburuen kasua, berriz, bestelakoa da. Hala ere hauen artean ere badira helburu lorterrazak eta edozein enpresaren esku daudenak.

Euskal hiztun gutxiko erakundeetan, gutxirekin asko lortu nahi izatearen logikak bultzatuta, Irudi eta Komunikazioko zenbait gai lantzera jo daiteke, bisualenak eta harrerarekin lotutakoak gehienbat: hizkuntza paisaia eta errotuluak oro har, harrerako osagaiak, irudi korporatiboa, web guneko orri nagusia, atal finkoak edota zerbitzuak, marketina eta publizitatea...

Erakundeak bere bezeroak hemengoak eta euskaldunak baditu, Kanpo Harremana ere lantzera jo dezake, bezeroari dagokion eremua bereziki¹: Inprimakiak, ahozko harremana, gutunak, bere produktuarekin lotutako hainbat alderdi...

¹ Erakundearen lana kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutakoa bada, 6/2003 Legeak finkatutakoa aintzat hartu beharko du.



Barne Harremanak ere landu daitezke, bereziki pertsonaleko komunikaziorik ohiko, orokor eta errazenak. Horixe izaten da euskal hiztunen kopuru ohargarria duten erakundeetan gehienbat landu ohi den gaia. Horrekin batera, ahal denean, euskal hiztunen arteko sarea osatzera jotzen da, euskara arian-arian lan-hizkuntza ere izan dadin. Honelakoetan langile euskal hiztunak planaren euskarri izan ohi dira.

Edozein kasutan, ez dago derrigor esparru guztiak batera landu beharrik, egingarri eta probetxuzkoenak irizitakoak baizik. Hori bai: beti errazenetik zailenera eta orokorrenetik zehatzenera abiatzea gomendatzen dugu. Eta, edozein gai lantzen delarik, garrantzitsua da harekin batera doan hizkuntza-irizpidea ere lantzea, orain lortutakoak geroan ere iraungo duela bermatzeko, eta benetan integratzeko.

Nahi izanez gero, laster batean abia dezakezun prozesua da. Horretarako aurreneko pausoa proiektu hau elkarlanean lantzeko lantalde bat eratzea da. Gure webgunean www.euskadi.net/lanhitz prozesu honi buruzko argibide gehiago dituzu.





05


LanHitzek eskaintzen dituen laguntzak

Egitarau honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zenbait laguntza tekniko eta ekonomiko jartzen ditu zure esku, zure erakundearen euskararen erabilera gehituko duten planei nahiz era guztietako ekintza onuragarriari sarbidea errazteko.

Laguntza teknikoak:

 Aholkularitza teknikoa, diagnostikoa egin eta jardun-eremuak lehenesteko.

 Kudeaketarako informatika tresnak, autodiagnostikoa, kudeaketa eta ebaluazioa egiteko.

 Ohiko agiri, terminologia eta esapideak jasotzen dituen banku telematikoa

Hau guztia eta bestelako laguntza osagarriak www.euskadi.net/lanhitz web orrian



Dirulaguntzak:

Planen diseinua, garapena eta kudeaketa deialdi publikoaren bidez diruz laguntzen dira.

Laguntza hauen onuradunak entitate pribatuak eta zuzenbide publikoko korporazioak dira; aurkeztutako aurrekontuaren %70 jaso dezakete gehienez ere eta dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste administrazioetatik lortutakoarekin.

Hona hemen 2006ko diru-laguntzaren gaiak, eta gehienezko diru-mugak:

Gehienezko muga (€/enpresa)	
Urte anitzeko lehenengo plana eta dagokion kudeaketa plana	6.000 €
Itzulpenak	8.000 €
Aldi bereko itzulpen zerbitzua	3.000 €
Euskal hiztunen trebakuntza*	15.000 €
Informatika baliabideak	13.000 €
Planaren jarraipen, ebaluazio eta egokitzapena*	15.000 €

*Gehi 2.000 edo 4.000 €/enpresa, langile-kopuruaren arabera





06

Argibide gehiago

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Telefonoa: **012**

Posta elektronikoa: lanhitz@ej-gv.es

www.euskadi.net/lanhitz

